



2024KO SANFERMINETAKO BALANTZEA

PROGRAMAZIOA

EKITALDI JENDETSUAK: 615.000 LAGUN

- **Su artifizialak:** 410.000 ikusle inguru Yanguas y Mirandan, Armada etorbidean eta Gaztelugibelen
- **Erraldoi eta Buruhandien Konpartsa:** 205.000 lagun

HAUR ETA FAMILIENDAKO JARDUERAK: 587.708 LAGUN

- **Birjolastu:** 60.000 lagun
- **Hauek Festak Hauek!:** 87.000 lagun
- **Kirolari Sport Kids:** 21.868 lagun
- **Haurrendako entzierroak:** 5.900 lagun
- **Kalejira:** 32.500 lagun
- **Txotxongiloak:** 5.540 lagun
- **Haurrendako trenak:** 7.700 bidaiari, Askatasun plaza eta Merindadeen plaza lotzen dituzten trenetan
- **Haurrendako dantza-jaialdia:** 1.400 lagun
- **Zezensuzkoa:** 362.000 lagun
- **Animazioa konpartsaren atsedenalbian:** 3.800 lagun

KONTZERTUAK ETA DANTZALDIAK: 365.900 LAGUN

Gazteluko plazako kontzertua (136.000 pertsona) eta Foruen plazako DJ saioak (103.000) izan dira jaietako musika-agertoki nagusiak, bien artean 239.000 pertsona bildu baitzituzten. Kontzertu jendetsuenak Zetak taldearena eta El Drogasena izan ziren, uztailaren 8an eta 10ean, 16.000 pertsonarekin, eta Izarorena, uztailaren 6an eta Dinamita eta Chill Mafia taldeena 7an, biak 14.000 pertsonarekin, Gazteluko plazan. Nabarmentzekoak dira, halaber, hainbat DJ saio, 15.000 pertsona ingururekin, Foruen plazan, uztailaren 6, 7, 8 eta 13an, eta Puro Relajo taldeak Antoniuttin uztailaren 9an bildu zituen 12.000 lagunak.

- **Foruen plaza:** 103.000 lagun
- **Compañía plaza:** 35.800 lagun



- **Gurutzeko plaza:** 15.900 lagun dantzaldietan
- **Gazteluko plaza:** 136.000 lagun
- **Antoniutti:** 70.000, arratsaldeko zein gaueko dantzaldietan
- **Musika-bandak:** 5.200 lagun Gurutzeko plazan

MUSIKA FOLKLORIKOA: 206.050 LAGUN

- **‘Jota-soinuak’ Sarasate pasealekuan:** 4.600 lagun
- **Dantzaldiak Gazteluko plazan:** 10.000 lagun
- **Uztailaren 6ko folklore-jaialdia, Foruen plazan:** 3.600 lagun
- **Jauzi-jaialdia Gazteluko plazan:** 1.500 lagun
- **Txistularien alardea:** 1.100 lagun
- **Bertso-saioak Sarasate pasealekuan:** 700 lagun
- **Dantza-emanaldiak Sarasate pasealekuan:** 550 lagun
- **Musika kalean:** 184.000 lagun

BESTE EKITALDI BATZUK: 67.585 LAGUN

- **Txupinazoa (Udaletxe plaza, inguruko kaleak eta pantaila erraldoiak):** 42.000 lagun
- **Herri-kirolak:** 4.600 lagun
- **Kulturen kalejira:** 41 taldetako 1.200 lagunek baino gehiagok parte hartu zuten.
- **Haurren eskaintza:** 4.700 lagun
- **Erakusketak:** 6.004 lagunek bisitatu zituzten *Musika sanferminetako karteletan* eta *Txantreako Erraldoien Konpartsaren 40. urteurrena* erakusketak, Kondestablen
- **Zentzumenen babeslekua, Kondestablen:** 2.257 lagun
- **Literatur ibilbideak:** 224 lagun
- **Gaixoa ni:** 5.000 lagun
- **Ekitaldi erlijiosoak (bezperak eta zortziurrena):** 1.600 lagun

GAZTE EREMUA

Sanferminetako Gazte eremua aurten Foruen plazan egon da berriz ere, 2023ko sanferminetan Konstituzio plazan egon ondoren. **35.200 lagunek parte hartu dute** arratsaldeaz –19:00etatik 22:30era– programatuta eta berariaz gazteei bideratutako jardueretan. Nabarmenezkoa da festetako lehenengo bi egunetan bertaratutako jende kopurua: 9.000 eta 8.000 pertsonatik gora 7an eta 8an, hurrenez hurren.



Foruen plazako Gazte eremuan **berrogeita hamar jarduera baino gehiago** egin dira uztailaren 7tik 14ra bitarte, askotariko proposamen eta berritasunekin. Puzgarriak, lantegiak, erakustaldiak, apar-festa eta musikak, besteak beste, osatu dute eremu horretako sanferminetako programazioa.

SF 2024	7	8	9	10	11	12	13	14
Gazte eremua	9.720	8.465	4.225	3.175	3.606	2.832	3.780	3.020

Gune hori 'Puntu seguru' batek osatu du, gazteen artean hedapen eta sentsibilizazio berezia behar duten gaien inguruko informazioa duena, hala nola sexu-osasuna eta sexualitatea modu positiboan sustatzea, LGTBI eskubideak, bullyinga, substantziekiko eta teknologiekiko menpekotasunak eta ijito-komunitatearen integrazioa sustatzea. Hainbat elkartek eman dute arreta festetan, hala nola Egham, Antox, Pika eta Hiesaren aurkako batzorde herritarrak.

SARE SOZIALAK

2024an @SanferminesPamplona profilaren bidez egin den sanferminen eta bere une ikusgarrien estaldura bereziak 3.642.604 kontutara iristea lortu du. Zifra horrek esan nahi du % 274ko igoera izan dela aurreko urtearekin alderatuta; izan ere, 2023ko uztailaren lehen hamabostaldian 1.330.735 kontu lortu ziren Facebooken eta Instagramen, eta urte horretako aldi berean, 3.642.604 kontu lortu ziren.

Datu horri beste udal kontu batzuek lortutako eraginak gehitu behar zaizkio, hala nola Kultura, Turismo, Gazteria edo Iruñeko Udalaren kontu instituzionalek lortutakoak, horiek ere sareen bitartez jaietako unerik garrantzitsuenen berri eman baitute. Irismen horri esker @SanferminesPamplona kontuak 15.000 jarraitzaile baino gehiago gehitu ditu.

Iruñeko Udalak aurtengo sanferminetan sare sozialen estrategian ikusleendako jaiak ikuspegi ezezagun eta berritzaileetatik partekatzearen aldeko apustua egin du Instagramen eta Facebooken, eta X sare soziala, berriz, gaurkotasuneko informazioa emateko erabili da. Guztira, @SanferminesPamplona profilek 600 argitalpen baino gehiago egin dituzte festa egun hauetan. Horietatik guztietatik, nabarmenenak ekitaldi nagusiak izan dira, hala nola Txupinazoa, entzierroak, Gaixo Nia eta kontzertuak, bai eta agendari buruzko informazioa eta udal-kanpainak ere. Instagramen bakarrik, reelsek 9.000.000 erreprodukzio baino gehiago izan dituzte. Ikusleek gogokoen dutenetako bat Txupinazoak eztanda egin ondoren gaitariak Udaletxe plazatik irteten diren unea da. Aurtengo reel biralenak, gaitariak irteten diren unea ikuspuntu ezezagun batetik erakusten duenak, dagoeneko 3.300.000 erreprodukziotik gora ditu, eta beste bik, 381.000 eta 117.000 bistaratze dituzte, hurrenez hurren.



HERRITARREN SEGURTASUNA ETA MUGIKORTASUNA

SALAKETAK

Segurtasun kidego guztien artean **1.651** salaketa jaso dira guztira sanferminetan eta 2023an 2.076 izan ziren. Hortaz, salaketek behera egiten jarraitzen dute eta aurten **452 gutxiago** jaso dira: % **20,47** jaitsi dira, beraz. Aurreko urteetan bezala, gehienak **ebasketagatik izan dira (guztien % 63)**, baina ebasketak % 32 murriztu dira iazkoekin alderatuta. Mugikorrak eta ditu-zorroak ebatsi dituzte bereziki. 68 pertsona atxilotu dituzte delitu horrengatik, eta guztira, 211 atxilotu dira. Atxilotuen kopuruak % 10 egin du gora, iaz 191 lagun atxilotu baitzituzten.

Nabarmentzekoa da, halaber, **sexu-erasoagatiko 24** salaketa egin direla, eta balizko **23** egile atxilotu. **Agintaritzaren agenteen kontrako atentatua, erresistentzia, desobedientziagatiko** salaketen kopurua ia hirukoiztu egin da, 2023ko 8 salaketetatik aurten 22 salaketetara igaro da: 34 pertsona atxilotu dituzte, eta iaz, berriz, 27.

	2024	2023	2022	2019	2018
Segurtasun kidego guztiek jasotako salaketak	1.651	2.076	1.969	2.005	1.906
Lapurreta indarra erabilita	41	31	47	70	103
Lapurreta indarkeria erabilita	53	55	23	45	33
Tratu txarrak familian	19	11	15	27	27
Sexu-erasoa	24	18	1	2	--
Sexu-abusua			16	10	6
Lesioak	58	59	79	63	48
Agintaritzaren agenteen kontrako atentatua, erresistentzia, desobedientzia	22	8	15	26	15
Osasun publikoaren aurka	7	9	18	5	7
Atxilotze-agindua / Pertsonatzea / Espetxean sartzea	6	4	5	5	6
Kalteak	36	17	42	34	53
Ebasketak	1.041	1.531	1.302	1.279	1.219
Atzerriartasunarekin lotutakoak	9	1	1	6	2
Gainerakoak	335	332	405	433	383

Udaltzaingoak 75 aldiz konfiskatu ditu produktuak, batez ere, janariak eta edariak (53); bitxigintza- eta artisautza-produktuak, puxikak eta arropa ere konfiskatu dira. Konfiskazio gehien lanegunetan egin dira.

IRUÑERRIKO HIRI GARRAIOA



Lehenengoz Iruñerriko Hiri Garraioak 2 milioi erabiltzaile baino gehiago izan ditu sanferminetan. Guztira, 2.014.869 bidaiari erregistratu dira uztailaren 6tik 14ra. Beraz, % 11,8ko igoera izan da 2023an erregistratu ziren 1.939.361 erabiltzaileekin alderatuta.

Villavesak gehien erabili ziren egunak honako hauek izan ziren: uztailak 6 (274.655 bidaiari), uztailak 7 (256.331) eta uztailak 8 (234.078).

BESTE HAINBAT JARDUKETA

Objektu galduak. Atzo jaso ziren azken objektuekin datuak osatu bitartean, Objektu Galduen Bulegoan 2.400 objektutik gora jaso dira festetan, besteak beste betaurrekoak, poltsak, diru-zorroak, agiriak, telefonoak eta taka-taka bat. Erregistratutako objektu guztietatik 266 jabeei itzuli zaizkie eta 1.020 pertsonari jakinarazi zaie beren agiriak edo beste ondasun batzuk bulegoan daudela. Objektu gehienak mota askotako agiriak dira, eta batzuetan, diru-zorroarekin edo poltsarekin batera doaz. 115 telefono mugikor jaso dira, horietatik 80 dagoeneko entregatu dira eta 61 jabetari jakinarazi zaie beren aparatua udal-bulegoan dagoela.

Ganadu-feria. Urtero bezala, uztailaren 7an San Ferminen Ganadu-Feria egin da. 122 eskorta instalatu eta guztiak bete ziren. Guztira, 313 animalia egon ziren ikusgai eta 283 saldu ziren, horietatik 4 Espainiatik kanpo joan dira.



BERDINTASUNA

‘ERASO SEXISTARIK GABE, IRUÑA ASKE’

Gazteluko plazako eraso sexisten aurkako argibide-gunea: 15.695 lagun (11.795 emakume, 3.860 gizon eta 40 ez bitar) joan ziren informazio bila, eta 19 gertakari berri jaso zen.

EGUNA	PERTSONA KOPURUA, GUZTIRA	EMAKUMEAK	GIZONAK	EZ BITARRAK	GORABEHERA- KOP.:
Uztailak 5	806	599	206	1	0
Uztailak 6	3041	2225	814	2	1
Uztailak 7	2550	1823	727	0	3
Uztailak 8	1569	1191	373	5	2
Uztailak 9	1180	941	232	7	1
Uztailak 10	1227	903	324	0	1
Uztailak 11	1023	817	195	11	4
Uztailak 12	1450	1133	315	2	2
Uztailak 13	1750	1355	390	5	2
Uztailak 14	1099	808	284	7	3
GUZTIRA	15695	11795	3860	40	19

Gertakari-kop.: 19

Lagun-egite zerbitzuaren aktibazio-kop.: 5

Deitutako mobilizazio kop.: 2

Sanferminetan eraso sexistei aurre egiteko prebentzio-kanpaina

Materialak eskura, Informazio-gunean eta udalaren webgunean. Honako toki hauetan ere banatu ziren: tren- eta autobus-geltokian, aireportuan, hoteletan, tabernetan, saltokietan, kanpinetan, jai-guneetan, taxieta, turismo-bulegoan...

Euskarriak:

- Neurri handiko 3 esku gorri paratu ziren Bake plazan, Karlos III.aren etorbidean eta Gipuzkoako etorbidean



- Kanpainaren irudia txertatu da udal-agertokien olanetan, txupinazoaren trenean, turistendako argibide-guneetan, autobus-geltokian, tren-geltokian eta aireportuan.
- Kanpaina agertu zen hiri-autobusetan eta taxietan, Iruñerriko Mankomunitatearen, TCCren eta Teletaxi Sanfermin enprekin lankidetzan.
- Kanpainaren irudia mantendu da Udalaren edalontzi berrerabilgarrietan
- Kanpainaren irudia eta baliabideak agertu ziren Udalaren eta sanferminen sare sozialetan, baita webgunean ere.
- 2.000 kartel (QR eta Navilens kodeak barne, kanpainari buruzko informazioa eta baliabideekin, eta desgaitasuna dutenendako gida egokituaren informazio guztiarekin)
- 75.000 informazio-gida
- 50.000 pin
- 160.000 pegatina
- 60.000 txartel, erasoren bat jasanez gero eskura dauden baliabideen informazioarekin
- 12 mupi
- 2 edikulu
- Presentzia autobus-geltokian eta tren-geltokian
- Haurrendako 5.000 kaiera

Agenteak

Iruñeko Udala, Emakumeen Udal Kontseilua eta emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko talde iraunkorraren koordinaziopean eta adostuta egin da kanpaina.

Sanferminetako eraso sexisten aurrean herritarrek eta erakundeek erantzuteko protokoloaren lan-esparruan, Koordinazio Batzorde Teknikoa egunero bildu da, eta erasoei eta bestelako gorabeherei buruzko datuak bildu ditu. Batzorde horretan Berdintasuneko, Gizarte Zerbitzuetako eta Udaltzaingoko zuzendaritzek eta teknikariek parte hartu dute.

Udala eta mugimendu feminista koordinatu egin dira herritarren eta erakundeen erantzun-deialdiak egiteko (uztailaren 7an eta 12an, 21:30ean, Gazteluko plazan), sanferminetan izandako eraso sexisten aurkako koordinazio- eta erantzun-protokoloaren esparruan.

***“Pamplona libre de agresiones sexistas/Eraso sexistarik gabe, Iruña aske”* estrategiaren entitate laguntzaileak:**

AENA, AEHN, ANAPEH, Tele Taxi San Fermín elkarte, Iruñeko merkatarien elkarte, CERMÍN, Autobus-geltokia, Iruñerriko Mankomunitatea, Turismo Bulegoa, Nazioarteko Prentsa Bulegoa, RENFE eta TCC, besteak beste.



GARBIKETA

BILKETAREN DATUAK

Atzoko egunari dagozkion datuak falta arren, 1.165.280 kilo hondakin jaso da, eta 2023ko sanferminetako 1.157.780 kiloekin alderatuta % 0,65 igo dela esan nahi du.

- **Beira: 538.100 kilo (% 2,41 gora)**
- **Zaborra: 327.700 kilo (% 1,06 behera)**
- **Ekorketa: 299.480 kilo (% 0,54 behera)**

Beira gehiago eta zorua ekortzean bildutako apur bat zabor gutxiago

Gaurko, uztailaren 15eko bilketaren pisuaren datuaren zain, 2024ko sanferminetan beira bilketan gorakada bat egon dela erregistratu da, iazko beherako joerarekin alderatuta. Aitzitik, pixka bat murriztu da udal-brigadek egiten duten zabor bilketa eta "ekortzea".

Birziklatze gehiago. Aurreko urteetako arrakasta ikusirik, 1.000 litroko edukiontzi gorriak jarri dira Gazteluko plazan eta Gaztelugibeleko landan (su-artifizialetarako eremuaren inguruan), bertan plastikozko hondakin ugari sortzen baitira (ontziak, batez ere). Halaber, Gazteluko plazan, Karlos III.aren etorbidean, Orreaga etorbidean, autobus-geltokiko landan, Sarasate pasealekuan eta Zezen-plazaren inguruan sortutako hondakinak gaika bildu dira (beira eta gainerakoa), eta hondakin gehienak plastikozko ontziak izan dira.

Aurreko urtean bezala, beira eskuz bildu da hori egingarriagoa den ingurunean: Gazteluko plaza, Karlos III.a, zezen-plazaren ingurua, Lizarra kalea, Baluartekeko plazaren ingurua, Sarasate pasealekua.

306 langile eta 70 makina. Aurreko urteetan bezala, sanferminetan udalaren garbiketa-zerbitzua indartu egiten da. Urtean zehar, 110 lagunek egiten dute lan hori astelehenetik ostiralera, eta festetan, berriz, 306 langile aritzen dira garbiketetan. Bestalde, 70 ibilgailu eta makina erabiltzen dira garbiketa-lan horietan.

Entzierroaren ibilbidea garbitzeko, Udaltzaingoaren eta Foruzaingoaren laguntza izan dute; garbiketa-makinei ingurua ziurtatuz lagundu beharrean, lan-korridore zabalak sortu dituzte, eta, horren ondorioz, segurtasun handiagoa lortu dute langile eta ikusleendako, eta lan-errendimendua izugarri handitu da, eta askoz ere giza baliabide eta baliabide mekaniko gehiago lehenago askatu dituzte Alde Zaharrean eta jai-ingurunean arreta emateko.

Berdeguneen, Eraikinen, Argiteriaren, Obren, Altzarien eta Ibilgailu-parkearen Zerbitzuei dagozkien taldeek arazorik gabe erantzun diete beren eremuetan izandako gorabehera txikiei: adarrak haustea Barañaingo etorbidean, uztailaren 6ko ekaitzaren ondorioz eroritako zuhaitzak



Erripagañan eta Mendillorin, eta Tres Reyes hoteleko biribilguneko lore-mazizoan gertatutako bandalizatzea. Guztira, 80 pertsona inguruk osatzen dituzte zerbitzu horiei dagozkien taldeak.

Edalontzi berrerabilgarria. Edalontzi berrerabilgarriaren erabilera orokortzen ari da sanferminetan. Aurten, azken asteburuko behin betiko datuak ezagutu gabe, Udalak 475.000 edalontzi banatu ditu tabernetan, peñetan eta udal-emakidako espazioetan. Kopuru hori % 13ko igoera da 2023an banatu ziren 422.400 edalontzien kopuruarekin alderatuta. Beste datu esanguratsu bat da jasotako eta garbitu eta desinfektatu ondoren, berrerabilitako edalontzi kopurua. Zifrak % 95ean egin du gora 2023koarekin alderatuta. Iaz 59.600 edalontzi jaso ziren eta aurten 116.000, uztailaren 12ra arte.

	Banatutako edalontziak	Jasotako eta berrerabilitako edalontziak (uztailaren 12ko datuak)
SF 2023	422.400	59.600
SF 2024	475.000	116.000
Gorakadaren ehunekoa	+ % 13	+ % 95



OSASUNA

IKUSKAPENAK

160 elikagai-ikuskapen. Iruñeko Udaleko Elikagai Ikuskaritza eta Zoonosiko zerbitzuak 93 jarduera ikuskatu, eta 116 ikuskapen egin ditu, guztira. Beraz % 28,39ko beherakada izan da 2023ko ikuskapen-kopuruarekin alderatuta. Ikuskapenak honako toki hauetan egin dira: ostalaritzako lokaletan, Foruen plazako, Gurutzeko plazako eta Antoniuttiko kontzertu-guneetan, zezen-plazan, jatetxeetan eta Runa parkean, Nafarroa Oinez eta Herri Sanferminak guneetan, eta ostalaritza eta elikagaiekin zerikusia duten bestelako jarduera egonkor zein ez-egonkorretan. Ikuskapen horien guztien artean 216 akats antzeman dira, iaz baino % 72,8 gehiago, batez ere, festen lehenengo hiru egunetan, instalazio eta trenetan (81), elikagaien higieneari buruzko prestakuntzarik ezari lotuak (35), elikagaien manipulazio okerra (23), instalazioen garbiketa falta (17), gabeziak trazabilitatean (14), elikagaien kontserbazioan (9) eta alergenoei (7), jarduera ez egotea lizentzian sartuta (4), lizentziarik gabeko jarduera (4) eta beste 25 beste mota batzuetako gabeziengatik.

Errekerimenduak zarata dela eta. Jaietako zaraten kontrolari dagokionez, sanferminetan 2.576 zarata-inspekzio egin dira establezimenduetan eta bide publikoan, 2023an baino % 10,55 gehiago, orduan 2.330 kontrol egin baitziren. Festetako bi asteburuetan 300 ikuskapen baino gehiago egin dira; 328 uztailaren 12an, ostiralean. **837 kasutan, soinua altu edo oso altu zegoen** (iaz baino % 29, 36 gehiago).

	UZTAILAKU	UZTAILAKU	UZTAILAKU	UZTAILAKU	UZTAILAKU	UZTAILAKU	UZTAILAKU	UZTAILAKU	UZTAILAKU	GUZTIRA
	6	7	8	9	10	11	12	13	14	
EGINDAKO IKUSKAPENAK	310	303	313	275	279	124	328	325	319	2.576
ZUZENAK	237	178	202	202	190	49	221	220	240	1.739
MUSIKA ALTUA	71	101	88	58	67	51	88	84	69	677
MUSIKA OSO ALTUA	2	24	23	15	22	24	19	21	10	160

Jaiaren erdigunean, puntu beltzenak toki hauetan egon dira berriz ere: San Nikolas kalean, Estafeta kalearen goiko aldean, Olite kaleko terrazetan eta Gazteluko plazan, baita Calderería, Jarauta, Comedias, Tejeria eta San Frantzisko kaleetan ere.

Animalien kontrola. Zoonosi Zerbitzuak 3 txakur bildu ditu, eta, kasu guztietan, jabeari itzuli zaizkio, kasu batean amorraren aurkako txertoa jarri eta pasaporte egin ondoren. 5 katu jaso dira eta 2 katakume Animaliak Hartzeko Zentroan daude balorazioa egiteko: bat harrera-etxe



batera eramán zuten premia bereziak zituelako eta beste bi katu-kolonietakoak ziren, beraz bertara itzuli ziren antzutu eta txertoak jarri ondoren.

Gainera, jarduera klinikoak egin zaizkie zentroan ingesatutako animaliei: 6 identifikazio-txip jartzea, 6 animalari bizkarroiak kentzea, 12 txerto tetrabalente eta amorruren aurkako 15 txerto.

Azkenik, feriako eta zirkuko langileen txakurren osasun-egoera egokia zela egiaztatu zen (txertoak eta identifikazioa barne).



TURISMOA

TURISMO BULEGOA

Turismo Bulegoak **2.793 pertsonari** eman die arta, 2023an baino % **27,3 gehiagori**. Larunbatean (uztailak 13) izan zituzten bisitari gehien, 415 bidaiari artatu baitzituzten. Jatorriaren arabera sailkatuta, gehienak beste autonomia erkidego batzuetatik zetozen (3 kontsultetatik 2). Batez ere, Euskal Autonomia Erkidegotik eta Kataluniatik, Nafarroako beste herri batzuetako bizilagunez gain. Nazioarteko bisitariei dagokienez, gehienak Frantziatik, Estatu Batuetatik eta Italiatik etorriak ziren.

Gehienetan, galderak sanferminei eta jarduera-programari buruzkoak ziren, Erraldoi eta buruhandien Konpartsa kasu, baina baita entzierrorako eta zezenketetarako sarrerek erosteari buruzkoak ere.



KOMUNIKAZIOA

KOMUNIKABIDEAK: AKREDITAZIODUN 430 PROFESIONAL BAINO GEHIAGO

Akreditatutakoak: Mundu osoko 130 komunikabidetako 430 profesional grafiko eta kazetari baino gehiago etorri dira Iruñera sanferminen berri ematera. Aurten hogeit hamar komunikabide, proiektu eta profesionalak eman dute festen berri lehenengoz. Espainiako komunikabideez gain, beste 14 herrialdetako kazetariak akreditatu dira (Georgia, Argentina, Frantzia, Ukraina, Estatu Batuak, Txile, Suedia, Kuba, Suitza, Mexiko, Japon, Serbia, Eslovenia eta Bulgaria).

- **Txupinazoa:** 42 komunikabidetako 179 lagun akreditatuta
- **Entzierroak:** 127 komunikabidetako 407 lagun akreditatuta
- **Gaixoa ni:** 46 komunikabidetako 100 lagun akreditatuta

Iruñean, 2024ko uztailaren 15ean